

Frutari begiratzeko bi modu

Bea Salaberriku ipuina idatzi du mandarinei buruz. «Azaroko mirakulu txikia» deitu die

Mutrikun mikroklima dago eta limoiondoak landatu izan dira aspalditik. Baina badira urte batzuk laranjondoak eta mandarinondoak ere ikusten direla hango zenbait lursailetan



LAUBIDE

FELIX
IBARGUTXI

Magdalena bati, begiratu die-zaiokegu Proustek begiratzen zion bezala, eta literatura egin; eta begiratu die-zaiokegu modu praktikoan, pentsatuz jateko ona dela, besterik gabe.

Mandarina bati, **Bea Salaberri** oso modu literarioan begiratu dio, eta hari begira gai izan da narrazio bat osatzeko. Beste batzuentzat, mandarina jaki goxo bat baino ez da, eta badakigu mota asko izan ohi direla eta goizko mota horietako bat Satsuma dela, orain dendentan ikus daitekeena; eta gero Klementinak etortzen direla, hauek seguru asko goxoenak...

Mutrikun, berriz, badira lagun batzuk limoiondoak, laranjondoak eta mandarinondoak dutenak baratzean, bai baitakite beren herrian mikroklima dagoela eta nekez egingo duela izotz gogorrik. Jakina denez, Meditteraneo aldeko fruta-erbolok ez dira izotzaldiei aurre egiteko gai. Makina bat jende saiatu da Gipuzkoako barruko aldean zitrikoak landatzen, eta zuhaitzak ondoen daudenean, ilbeltzeko edo otsailko izotzaldiren batek betiko galdu ohi ditu.

Idazlearen esanak

Idazlearekin hasi gaitezen. **Bea Salaberri** (Donamartiri, 1979) ez du gertaera handirik behar literatura egiteko. Duela hiruzpalau aste **'Baionak ez daki'** (Susa) liburua atera du, narrazio laburrez osatua. Kontakizun horietako bati **'Mandarina'** ipini dio izenburu. Begira nola deskribatzen duen mandarina hartu eta jaten den une hori:

«Gainerakoa ahanzi eta esku artera bildu orduko lehen fruitu gorriaila, poliki-poliki, azazkal inklinazio xorrotx batez, urratzen zaio azala eta 'psir' batean ziliporta mehez errenditzen da herri urrun beroetako altxorrinimioa, gela osora zabalduz usain gozagaria. Hastapena baizik ez du, baina jada bereak egin du. Irentsia izan aurreko tarte laburra izanzen zaio orain».

Handik aurrera, Salaberri haur-denborako Eguberri garaietako oroitzapen batzuk aletzen ditu. Behe Nafarroako jaioterrian, Do-



Bea Salaberri. Ipuina egin du mandarinei buruz. :: F. I.



Antonio Iparragirre. Etxeko laranjei begira. :: LUSA



Ramon Basurko. Baditu jateko moduko mandarinak. :: LUSA

namartirin, ustea omen zegoen mandarina tirada luze bakarreen zurituko zuena ezkontzeko pertsona egokia izaten zela. Eta Gabonetako izeian mandarina-azal zatiak zintzilikatzen omen ziren, apaintzeko baino usain zabal zezaten....

Nekazarien esanak

Eta orain, literaturaren eremua lagata, goazen **Mutrikura**. **Sagarmiña** baserria famatua da bere frutagatik. Makina bat sari lortu du sariaketetan. Eta txakolina-ekin ere lortu du fama galanta; badira 30 urte egiten hasi zela. Aurten oso mahats-urte ona izan omen da, ez aurrekoa bezalakoa.

Sagarmiñako **Antonio Ipa-**

rragirre hartu nau. Baina kontuan izan behar da emaztea ere, **Pakita Urbieta**, jarduten dela frutagintzan. Harrigarria da hango ikuskizuna. Laranjondoak, adibidez, hiru motakoak dituzte Sagarmiñan: Navelina, Navel eta Salustiana. «Gurean, goxoena, Navelina ateratzen da. Eta berori da gainera goiztiarrena. Urte berriarekin batera etorriko da», esan dit Antoniok. Zuhaitzok urtero ematen dute alea, eta iaz Salustiana batek 140 kilo eman zituen. Erraz esaten da.

Orain dela 30 bat urte hasi ziren Sagarmiñan zitrikoak landatzen; beti babesean, etxearen kontra. Mutrikun bazeuden lehen ere laranjondoak zenbait tokitan -jardinetan eta- baina

makatzak ziren, jateko txarrak. Sagarmiña izan zen lehenbizikoa mota jangarriak landatzen.

Limoiondoak, berriz, Mutrikuko hainbat tokitan zeuden eta daude. Arbola mota honek badu ezaugarri ondo nabarmen bat: etengabe ematen du fruitua. Alea kendu orduko hasten da lora ematen.

Zitrikoen alde txar bat, Antonioren iritziz: ale asko dutenean, saiatzen zara bakanitzen, baina oso zaila da, adarrra gogor itsatsita egoten dira eta.

Eta Sagarmiñatik Mutrikuko plazara. Han **Ramon Basurko**ekin daukat hitzordua. Herrian 'Txanbel' esaten diote. Gizon hau ez da baserritarra. Metalurgian eman du bere lanaldi guztia, **Antxuela** familiakoa da eta arbasoen lursail batean -Basailun izenekoa parajea- fruta-arbol multzo handia landatu du. Eta sakon-tako zuhaitzak daude han, baina ezinezkoak diruditenak ere -adibidez, almen-drondoa-, baina Ramonek ez du etsitzen.

Gizon honek ere uztza ederrak lortu ditu bere zitrikoekin. Badira 22 urte landaketekin hasi zela eta, oraingoz, bera ere libratu da izotzaldi gogorretatik. «Behin, elurra egin zuen, gero eguzkia, eta hostoa egosi bezala egin zen. Dena belztuta gelditu zen, baina hurrengo urtean berriro freskatu zen», esan dit. «Amak kontatu izan dit 1956ko otsailan izotzaldi luze bat egin zuela eta orduan herriko limoiondo guztiak izorratu zirela».

Ramon ez da fio, eta sistema hau dauka arbolak izotzetik babesteko: ipurdien ondoan, balde bat urez bete, eta soka bat, batetik ipurdia lotuta eta bestetik uretan sartuta. «Superstizioa izango da beharbada, baina...», esan dit.

Eta Ramonen beste datu bat: «Hemen Mutrikun **Laranga** auzoa dago. Nik uste dut Laranga deitua hori Laranja bezalakoa dela. Esaten dute -eta udaletxean egon behar du dokumentazioa- orain hainbeste urte ez dela, berrehunen bat, Mutrikutik laranja asko eramaten zela Ingalaterrara».

Ondo dokumentaturik dago Asturiastik ere laranja ugari eramaten zela Ingalaterrara. Valentziatik bidaia luzeegia jotzen baitzuten.

fibargutxi@diariovasco.com